

# Pablo ahanzturan eror ez dadin

Koldo SAGASTI

**E**pe labur samarrean egingo zaio Pablo Gonzalezi dagokion epaiketa», iragarri zuen Zbigniew Rau Poloniako Atzerri ministroak NATOk segurtasun aferen inguruko batzar baten osteko prentsa agerraldian, iragan maiatzaren 24an. Dagoeneko ia lau hilabete pasatu dira zorioneko adierazpenetik, eta kazetari gatibuaren aurkako epaiketaz arrastorik ez. 2022ko otsailaren 28an atxilotu zuten Poloniako segurtasun indarrek berriemaile busturiarra, Ukrainarekiko mugan, zegokion prentsa-akreditazioa zeramala eta errefuxiatuen ihesaren berri jasotzen ari zela, eta urte eta erdi geroago Radomeko kartzelako ziega ba-

tean jarraitzen du leporatzen zaizkion balizko delituak ezagutu gabe. Pentsa genezake kazetariaren egoera Espainiako diplomaziaren makineria guztia martxan jartzeko bezain larri dela, eta egunero prentsako hedabide guztietako azalera ekartzeko bezain garantzitsua, baina ez, Jose Manuel Albarres buru duen Atzerri Ministerio espainolak ez du hatz bat bera ere mugitu 18 hilabete hauetan berri emaile atxilotuaren egoera argitu dadin, eta auziak, sare sozialetako mintegietatik harago, komunikabide espezializatu gutxi batzuetan baino ez du oihartzuna. Akaso bizkaitarraren zoria bestelakoa zatekeen, kazetari free lance eta gerra zi-

bilean Sobietar Batasunera erbesteratutako iheslari baten ondorengoa izan beharrean, aktore famatu baten seme bihurria izan balitz eta turista bat erail eta gorpua zatikatu izan balu. Behar bada zorionekoagoa zatekeen bahitu duen erregimena Espainiako estatu aliatu batena izan ez balitz eta kontakizun hegemonikoaren alderdi egokian izan balitz. Nolanahi ere, nago Gonzalezen aferak ez duela merezi duen erantzunik izan, ez administrazioaren, ez prentsaren eta ez gizartearen partetik, eta eskumen diplomatikoak eta mediatikoak dauzkate-nek egoerak eskatzen duen bezala jokatzen ez duten bitartean gu guztion esku dagoela Pablo ahanzturan ez erortzea. •

# Nik ez daukat zalantzarik

Asier AIESTARAN

**B**ihar erabakiko dira Kontxako Banderaren irabazleak, eta ezin zaio bigarren jardunaldiari emozio handiagorik eskatu: emakumezkoen lehian lau ontzi daude lau segundoko tartean, bandera irabazteko aukerekin, eta gizonezkoen mailan bost traineru ditugu zazpi segundoko tartean, garaikurra bereganatzeko hautagaiak den-denak ere. Lerro hauetan bereziki emakumezkoen traineruek urte gutxian izan duten garapen ikusgarria nabarmendu nahi nuke, kazetari bezala nahiko gertutik jarraitu dudalako. Eta era berean, Rubiales kasuak kirolaren eta kirol-kazetaritzaren miseria asko azaleratu dituen honetan, atzera begira jarrita au-

tokritika apur bat egitea ere komeni dela uste dut. Oroitzen naiz, esaterako, bai Kontxako Bandera bai TKE Liga selekzioka jokatetik elkarte moduan jokatzerira iragazten garai horretan izaten genituen zalantzez. Izango al dira nahikoa emakume elkarteetan trainerua atera ahal izateko? Zenbat elkarte izango dira gai trainerua uretaratzeko? Agian Gipuzkoan bai, baina zer gertatuko da beste lekuetan? Agerikoa da, oraingoz, Gipuzkoan indar handiagoa duela arraunak, baina tokitan gelditu dira zalantza haiek. Aurtengo sailkatze estropadan Galiziako sei traineruk hartu dute parte –berez zazpi zeuden izena emanda–, Bizkaiko hiruk eta kantabriar batek.

Urte batzuk geroago, Kontxan emakumezkoen estropadan ere zortzi ontzik parte hartzea erabaki zenean, zalantzak agertu ziren berriz. Ez al da zulo handiegia egongo onenaren eta zortzigarrenaren artean? Ez al du ikuskizunak galduko? Ez al da sobera geratuko lehen txanda? Aurtengoa begiratu besterik ez dago: emakumezkoetan zortzigarren izan zen Kaiku 37 segundora dago; gizonezkoetan zortzigarren izan zen Ondarroat, 40ra. Ligan aurten izan dira zortzi ontzi estreinakoz eta ikuskizunak ez du inolako aitzakiarik izan. Eta jada askoren ahotan dago hurrengo aldaketa: emakumezkoek gizonezkoen distantzia bera egitea. Aurrera, nik ez daukat zalantzarik. •